

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2025eko udal-baratzeen aprobetxamenduaren errolda eta zerga-bilketa ikusgai jartzea

Udal baratzeak aprobetxatzeagatiko 2025eko tasaren errolda egin ondoren, jendaurrean jartzen da interesatuek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Halaber, interesdunek udaletxeko idazkaritzan izango dituzte eskueran erroldok, jendea hartzeko orduetan.

Halaber, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

I. Ordaintzeko epea.

A) Araututako epea: 2025eko martxoaren 1etik apirilaren 30era.

B) Betearazpen epea: 2025eko maiatzaren 1etik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Banku-erakundeetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ordainketa helbideratuta zutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko, bankuko helbideratze-kontua aldatu ez badute. Udala ordainketa izapidetzeaz arduratuko da.

B) helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez dutenek kreditu-txartelaren bidez ordaindu ahal izango dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara. Era berean, "Nire ordainketa" (www.zigoitia.eus) ordainketa-pasabidearen bidez ere ordaindu ahal izango dute, edo, bestela, Kutxabank eta Euskadiko Kutxa erakunde laguntzaileen bulegoetan ordainketa-agiria aurkeztuz.

III. Aholkuak.

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ondategin, 2025eko otsailaren 10ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA